

...eta Kitto!

2016-IV-22

970 zkia.

FERIA
DE PRODUCTOS
Y SERVICIOS PARA
PERSONAS
MAYORES
16 y 17
ABRIL
PLAZA DE UNZAGA



...eta bertsoek herria hartu zuten...

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34

F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com





Policlínica Gipuzkoa

Grupo  Quirónsalud

Maria Navajas, Digestio-Aparatuan espezialista:

“Sintomek gure bizimodua oztopatzen dutenean eta zerbait ondo ez dihoala igartzen dugunean espezialistarengana joan beharko genuke”

María Navajas Policlinica Gipuzkoako Digestio Aparatuaren zerbitzuko espezialistak herritarrek digestio-aparatuan jasaten dituzten ondoezik nagusienak, eta haien agerpena ekiditeko jarraibideak azaldu dizkigu.

Kasurik gehienetan, kontsultara datozenek min abdominalak, digestio-arazoak eta dispepsia (hantura, aire asko...) dituzte”, dio María Navajas digestio-aparatuan adituak, eta gehitu du “bigarren maila batean etortzen zaizkigu heste-erritmoan alterazioak dituztenak, hala nola, idorreria edo beherakoa”.

Molestia horientzako tratamendu asko daudela dio espezialistak, “gaur egun, digestio-espezialitatean, mediku-tratamenduak eta endoskopikoak daude. Nagusi diren gaitasun eta patologiak izanik, bariazio eta soluzio asko dago merkatuan, eta patologiarekin araberak, aukera terapeutiko endoskopiko aurreratuak ere existitzen dira. Gero eta gehiago ikertzen da alor honetan”, azpimarratu du María Navajas-ek.

“Egia da gaur egun ongi eta osasuntsu jaten ahalegintzen garela. Herritar gehienek dieta osasungarriak ondo ezagutzen dituzte; beste gauza bat da, estresa eta egunorokotasunaren ondorioz, dieta horiek betetzea zaila izatea, eta horrek eragiten ditu arazoak”, dio adituak.

Ez itxaron sintomek aurrera egin arte

“Pazientea bere bizimodu arruntean aldaketak eta zerbait



María Navajas Laboa, Digestio-Aparatuan espezialista.

ondo ez dihoala igartzen hasten denean joan behar da medikuarengana. Mina, azalpenik gabeko pisu-galera, heste-erritmoaren aldaketa, odola gorozkietan... dira kontuan hartu beharreko sintomak”, Navajas-en hitzetan.

Sintomatologia hori “digestio-patologia gehienetan ematen da, beste gauza bat da pazienteak patologia horiek identifikatzeko gai izatea, medikuarengana joatea edo “pasatuko direla” pentsatzea. Pertsona bakoitza mundu bat da; aldaketarik txikienarekin beldurtuta doaz batzuk sendagilearengana, eta beste batzuk, berriz, sintomak luzaroan dituztenean eta horiek tratatzea eta arrakasta terapeutikoa lortzea zaila goa denean agertzen zaizkigu”.





Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Maialen Belaustegi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhua Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzeza hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAIÑO.- Hodeia. "Goazen arin, hórrek laiñuok eurixa dakarre-ta". Gaztelera "niebla" esateko, behe-laino erabiltzen da.

LAKAINA.- Bizar ile soltea. "Lau bizar lakaiña bakarrik zittuan arpegixan".

astean esanak

"Mendebaldeko edozein jatetxeko tailarin frijituen plater batek Brasilgo yanomami indiar batek urtebete eta hiru hilabetetan hartzen duen gatz kopurua du. Horrekin ez dut esan nahi indigenek urte gehiago hartuko dituztenik, baina bai duten dietarekin inoiz ez dutela hipertentsiorik izango. Herrialde industrializatuetan hartzen dugun gatzaren %12 bakarrik ipintzen dugu gure etxean, beste %12 jaten dugun elikagai freskoetan dator eta falta den %75 beste pertsona batzuk gehitzen digute prozesatutakoetan"

(JARED DIAMOND, FISILOGOJA)

"Euskara elkarteok gure buruari galdetu behar diogu euskaratik bakarrik dihardugun. Hau da, gaurko gizarte bera baina euskaraz da guk nahi duguna? Euskalgintzan dihardugunean, gizarte eta mundu hobe baten alde egiteko bokazioarekin ez dihardugu? Orain arte, euskarari eta euskal kulturari zuzenean lotutako gaietan bakarrik bustitzearen alde egon naiz, argi nuelako erabaki horrek mesede egiten ziola Elgoibarko Izarrari; baina orain zalantzak dauzkat. Galdera hori gure mugimenduak dituen oinarri filosofikoan sendotasuna neurtzeko ariketa interesgarria izan daiteke"

(IMANOL LARRAÑAGA, EUSKALTZALEA)

"Anormala ez da normala bihurtzen askok egiten dutelako; gehienez jota ere, maizko anormaltasuna izango da. Guztiok uste dugu jendea besteak direla eta, horregatik, besteei eskatzen diegu iraultza egin dezaten. Hil ere, beti hiltzen dira besteak; eta orain arte hori da egia. Panamako entzun dugunean ere, berehala esan dugu hor azaltzen direnak lotsabako batzuk direla. Baina izan daiteke gu ere lotsabako batzuk izatea beste arlo batzuean eta, Panamako zerrendetan ez bagaude, hara eramateko materia primariak ez dugulako izatea. Egiten dugunaren erantzuleak gara"

(LEOPOLDO ABADIA, IDAZLEA)



ENRIKE ZUAZUA

Negar lehorra

Gaur, Kalamuako maldan, antzinako lagun batekin topo egin dut. Galduta zebilen zeharo. Urdurik, honela esan dit:

"Malkorik gabeko negarrak egin ditut, mingarrienak, barrutik erretzen dutelako. Nire ikuspuntua, neure gogoak eta sentimenduak, hainbat aldiz azaldu ditut, baina oihartzun eta entzulerik gabe. Eraikin berriak jasotzen ahalegindu naiz, behin eta berriro, baina ingurukoek bata eta bestea bertan behera bota dituzte, berehala. Azkenean etxe gabe geratu naiz, eskuak zauriz eta kailuz estalirik. Ia den dena galdu dut. Berriz hasi beharra daukat, nekatuta nagoen une honetan, ilea zurituta. Arriskatu dut. Eta galdu egin dut. Baina egitean neure burua hobeto ezagutzeko aukera izan dut. Zaila da, bai, norberaren barnerantz begiratzea, kanpoko paisaia estimuluz beteta dagoenean, barruko argazkia gogokoa ez denean. Bideak ez nau inora eraman, ibiltzen jarraitu behar dudaren seinale, zapatak gastaturik ditudan honetan. Baina noraezean bakarrik ez nagoela deskubritu dut, itsasoa naufragoz beterik baitago. Gaur amore eman dut, baina gaurkoz bakarrik, gau honen ostean, gau zuria agian, egun berria izango delako. Neureak benetan direnak gutxi dira, baina mugagabeko autentikotasunarekin jantziak daude. Eurendako hitz hauek. Oraindik direnentzat, izan ziren eta izango direnentzat".

Amaitu duenean lasaituta zegoen eta elkarrekin jaitsi gara herrira, bide osoan isilik. Ez ahazteko bere hitzak paper honetan idatzi ditut. Arrazoia duela uste dut. Bat-batean, bere hitzak entzutean, gure belaunaldiko hainbat naufragorekin gogoratu naiz. Agurrak naufrago guztiei. Suertatuko da, bai, irla bat. Amore ezin eman.

Debabarreneko Enplegu Anezka abiatu da

Langabezia duguaz 25 gazte Debabarreneko Enplegu Anezkan biherra billatzeko **trebatzen hasi dira**. Ekimena Gipuzkoako Foru Aldundiak, Santa Maria la Real Fundazioak eta Telefonica Fundazioak sustatu dabe, Debegesa garapen agentziarekin alkarlanian, eta Europako Gizarte Funtsaren kofinanziazioa dauka. Taldian 21 eta 34 urte bittarteko 15 andra eta 10 gizon dagoz eta, ikasketeri begira, talde anitza da (ikasketa barik, DBH, Lanbide Heziketa, Batxillergua eta unibertsidadeko gradu ezberdiñak). Vanesa Hortas teknikarixak egin dau hautaketa prozesua eta bera arduratuko da datozen bost hillabetiotan Anezka ku-deatziatz. Astean hainbat egunetan bilduko dira Debegesan, enplegarrittasuna hobetzeko jarduerak egituko. Bestiak beste, honakuak egingo ditute: coaching eta adimen emozionaleko saiuk, komunikazio dinamikak, marka personala eta enplegu billaketia 2.0, alkarrizketa personaletarako entrenamendua, enplegarritasun mapak, enpresetara bisitak, billerak ekintzailliekin eta lan bitartekaritzako prozesuak Giza Baliabidietako arduradunekin.



auto istripu bakarrik izan ziran iaz Ubitxatik Azittaiñeraiño doian autopistaren tartian. 2014an 23 auto-istripu jaso ziran 71 punto kilometrikotik 73,8ra doian tarte berian, eta 2013an 35 izan ziran gertatutakuak. Tarte horretan abiadura orduko 100 eta 80 kilometrorra dago mugatuta.

Santurtzitik Nepalera bizikletan

Domekan Santurtzitik urtengo dau Gergori Ayarzaguenak, Nepalerañño bizikletan juateko asmuarekin eta etxetik kanpora lehen gaba Eibarren egingo dabela eta, gurian bizi diran nepaldarrak eta euren lagunak tea hartzera gonbidatuko dabe, 18:30xetan Untzagan. Bide batez, bidaiari lotutako "Una pizarra para Gorkha" (unapizarraparagorkha.com) Nepalgo herrixaren garapenerako proiektua azaltzeko aukeria eukiko dau. Oin dala urtebete gertatutako lurrikarak gogorren astindu eban distriuetako bat Gorkha izenekua izan zan eta, hango herritarreri eta batez be "Balkalian lower secondary school" eskolakueri laguntzeko asmoz, Gergori Ayarzaguenak bizikleta gaineko abentura hastera animau da. Berak diñuan, lurrikara gertatu baiño lehen be bazebillen horrelako bidaia egitte-



ko ideari buruan bueltaka, eta hondamendixak bizikletara igotzeko bihar eban azken bultzadia emon zetsan. Himalayara ailegatzeko 12.000 kilometro egin biharko ditte eta, aurreikusitakua betez gero, domekan Santurtzitik abiatu eta aurtengo abuztuan Ankarara ailegautuko da eta, bigarren etapa batian, Ankaratik Nepalerañño tartia beteko leuke (2017ko martxotik uztaillera).



Bigarren Errepublika goguan

Aurreko asteko egunian, apirilaren 14an bete ziran Eibarren beste iñun baiño lehen Bigarren Errepublikia aldarrikatu zala 85 urte eta, betiko martxan, hori gogoratzeko ekitaldi-xak antolatu zittuen talde diferentia: **Eibarko Sozialistak** egunian bertan, goizian "Casa del Pueblon" banderia igota eta Txaltxa Zelaixan txapliguak botata; **EH Bilduk eta Ahaztuak 1936-1977** alkartekuak, barriz, arratsaldian Untzagan, udaletxeko arkupeian alkarrekin egin-dako ekitaldixan; eta domekan **Gazte Komunistak**-en eskutik Ermutik abiatutako III. Erre-publikaren aldeko martxa aillegau zan gurera eta, jarrai-xan, Txaltxa Zelaixan ekitaldi politikua egin eben Ezker Anitza-IU eta PCE-EPK alderdixetako ordezkari-xak.



autuan

TERTULIA FEMINISTA

Gaur 18:30ean hasita eta 20:00ak arte tertulia feminista egingo dute Andretxean, Nalua talde feministaren "11 Emakume 11 Bizipen Borroka 1" izenburuko dokumentalaren inguruan.



SUHILTZAILLIEN LEGIA ATZERA

EH Bilduk, PSE-EEK eta PPK Eusko Jaurlaritzaren Suteen Prebentzio eta Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak Arautzeko Legea atzera botatzia eskatu dabe, "hutsune larri-xak" dittalako eta profesional "ia guztien gaitzespena" jaso dabelako. Gauz-xak horrela, Legebiltzarreko oposiziñoko hiru alderdi nagusixak martitzenian osoko zuzenketak jarri zetsazen, suhiltzailliak lege horren kontra mobilizaziño mordua egiñ eta gero.

HERRI 33 URRATS 2016 Jalgi

euskara
Jalgi hadi
 mundura

autobus
 Goizeko **08.30**ean
 IRTENDA

12€

zerbitzua
 Arratsaldeko **19.00**etan
 BUELTATZEKO

MAIATZAREN 8A SENPERE

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

f M Funeraria·Ehortzetxe
Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Elikadura burujabetzari buruzko hitzaldixa

Aste honetan hitzaldi bi eskindu ditte AlternatEibar taldekuak eta datorren astian emongo dituen beste bi hitzaldixekin biribilduko ditue gizarte eredu alternatibueri eskindutako jardunaldixak. Martitzenian egingo dan "Elikadura burujabetza" izenburukua gurasuendako bereziki interesantia izango dala pentsatzen dabenez, Eibarko Guraso Elkarte guztiak gonbidatu ditue: "Hainbat hizlarien esperientzia gertutik ezagutzeko aukeria izango da: Larrabetzuko Txinpasmendi Guraso Elkarteak azken lau urtietan au-



rrera daroiana, eskoletako jangeletan Ekolapikok egindako ekimenak eta Orduñako Ekoizpen-en ekintza eta zerbitzuak tartian". Eta eguaztenian "Ekonomia sozial eraldatzailea" izenburukoan "Batura: Ekonomia sozial eraldatzailearen Euskal Herriko Mapa" eta Beterri Garapen Agentzia azalduko ditue. Bixak Portalean izango dira, 19:00etan.

Inbestigaziorako laguntza Zuazuarendako

Europako Ikerkuntza Kontseilluak Espaiñiako ikerketa zentruetan fisika, biomedikuntza eta gizarte zientzia moduko esparruetan biharrian diharduen hamabi ikertzailleri 25 millioi euro emongo detsaz eta laguntza jasoko dabenetako bat Enrique Zuazua matematiko eibartarra izango da. Basque Center for Applied Mathematics-en dagan Zuazuak bost urteko epian inbestigaziño proiektuetarako 2'5 millioira arteko laguntasuna jasotzeko aukeria eukiko dau, Advanced Grants izeneko diru-laguntzari esker.



Saharako umieri laguntzeko kamisetak

Saharako haureri laguntzeko "Oporrak Bakean" programako kamisetak ipiñi ditue salgai, 10 eurotan. Nahi dabena interneten, karena.eu/es/proiektua/oporrak-bakean helbidian sartuta edo Eibar-Sahara alkartekuen Facebook-aren bittartez erosi leike. Kamiseten neurrixak, bestalde, hōnek dira: 1/2, 3/4, 5/6, 7/8, 9/10, 11/12, S, M, L, XL, XXL eta koloriak, barriz, urdiña, berdia, gorrixa, baltza, grisa eta zurixa.



Izan zeben lan-extrak be pintxo-potia zerbitzen zeben bittartian. **Maialen**

Deparkelen aldeko pintxo-pote arrakastatsua

Aurreko asteburuan, zapatuan egin zan Deparkel Debabarrena Parkinson Elkartearen aldeko pintxo-pote berezixa Untzagan. Foballa zala-eta egun osuan jende mordua ibilli zan eta askok, postu paretik pasatzen zirala aprobetxauta, pintxo edarra merke jateko eta bide batez alkartiari laguntzeko aukerarik ez eben galdu nahi izan.

Gin Tonic lehiaketako finala

Gaur 20:30xetatik aurrera Untzagan egingo dabe Euskeraz Primeran! egitasmuari lotuta ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu daben I. Gin Tonic lehiaketako finala horretarako aukeratu dituen hiru tabernekin: Amesti, Ametsa eta Txoko aukeratu ditue finalista izateko eta onena gaur aukeratuko dabe, Oskar Pardo eta Ivan Feijó epaimahaikiadiak, Oihan Vega Dj eta esatarixak girotuko daben ekitaldixan. Horretarako tabernetako ordezkariak zuzenian eta jendaurrean preparau biharko ditue. Oskar Pardo Troitiño Oretetako koktel-egille ospetsuaren lan taldian dago eta Ivan Feijó, barriz, Ermuko Gin Tonic Lehiaketako antolatzaillietako bat da.

Finalistak banan banan egingo ditue gin tonic-ak, epaimahaikide bakoxtarendako bana, eta horretarako 10 miñutu eukiko ditue. Irabazliak 300 euro jasoko ditte eta bigarren eta hirugarren sailkatuak, barriz, koktelak egitteko kit

1. Gin Tonic lehiaketa
FINALA

Apirilaren 22an (barixakua)
20:30ean, Untzaga plazan

FINALISTAK
Amesti - Ametsa - Txoko

OIHAN VEGAK girotuta

bana irabaziko dabe. Bestalde, asteburuan lehiatu diran tabernetan gin tonic-a edan eta botua emon dabenen artian zozketatu daben asteburu pasa Patricia Feijook irabazi dau eta saridunak gaur jasoko dau premixua.

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Gerrarik Ez taldiaren billeria

Siria eta beste herrialde batzuetan zibillen kontrako bonbardaketak, millaka errefuxiatuaren desplazamendu eta heriotzak eta bestelakua gero eta sarrizago albistietan agertzen dirala ikusita, Eibarko Gerrarik Ez taldia billera irekita deitu dau astelehenerako, 19:00etan Arrate Kultur Elkartian. Bestiak beste, billeran komentauko dittuen gaixak h6nek dirala aurreratu dabe: mobilizatzeko eta beste talde batzuekin batera koordinatzeko aukeria, taldiaren manifestua garatu eta onartzea eta gerrak historixan euki daben tokixari buruzko hitzaldixa antolatzia. Informazi6n gehixago nahi dabenak Facebook-en ([facebook.com/groups/Gerrarik.Ez.Eibar/](https://www.facebook.com/groups/Gerrarik.Ez.Eibar/)) eta Google-groups-en (groups.google.com/forum/#!forum/eibarko-gerrarik-ez) topauko dau.



Maialen Belaustegi

Nagusixen Hamabostaldixa martxa betian

Aurreko astian abiatu zan Nagusixen Hamabostaldixa, bari-xakuan Portalean egindako ekitaldixarekin. Asteburuan, barriz, Nagusixen Azokia egon zan zabalik Untzagan, bereziki adi6neko jendiarendako produktu eta zerbitzuen barri emoten. Hamabostaldixaren harira antolatu daben programiak aurrera segiduko dau datozen egunetan be eta datorren astian, bestiak beste, Idoia Sarrasketa medikuaren "Botikak ondo hartzea: noiz eta nola?" hitzaldixa, toka eta igel-toka txapelketia, txokolate-jana, kantuak eta mahai-jokuen txapelketia egingo dira.

Armerixako ikaslien jaixa

Armeria Eskolako Ikasle Ohien alkartekuak aurreko zapatuan egin eben urteko batzarra eta, betiko moduan, jaixaren aitxakixarekin al-kartu ziranak edarto pasau eben eguna: eskolako ekitaldixan, bestiak beste, Juan Luis Arregi Armeria Eskolako Mendeurreneko enbaxadore eta GAMESA-ko sortzaillia izandakuak hartu eban parte. Taldiaren erretratua etarata, Unzaga hoteleko bazkarixarekin agurtu eben aurten-go jaixa.



Josu Torrealdai

Estitxu Garai Artetxe publizista eta EHUko irakaslea Eibarren egon zen martitzenean "Euskara, tresna eta aukera merkataritzan" hitzaldia ematen. Estitxuk eskarmendu handia dauka publizitate alorrean, eta publizitateari buruzko oinarrizko kontzeptuak azaltzeaz gain, merkataritzaren sektorean euskarak daukan garrantzia azaldu zuen. Maiatzaren 3an berriro izango da Eibarren, Euskararen Transmisioari buruzko Mintegian.



ESTITXU GARAI (publizista eta EHUko ikerlaria):

"Euskara saltzeko plus-a da, gertutasuna eta bertakotasuna pizten dituelako"

Estitxu Garai gordexolatarra Eibarren egon zen ...eta kitto! Euskara Elkartek "Euskeraz Primeran!" kanpainaren barruan merkatarientzako antolatutako hitzaldia eskaintzen. Saioaren hasieran merkataritzaren sektorean eragina daukaten publizitateari buruzko oinarrizko kontzeptuak azaldu zituen. Marka eta posizionamendua bezalako kontzeptuak sarritan ez direla ondo erabiltzen azaldu zuen publizitate adituak. Bere esanetan, "markari buruz hitz egiten dugunean logotipoa etortzen zaigu burura, baina marka hori baino gehiago da. Marka, funtsean, promesa bat da, hau da, saltzaileak erosleei produktu bat saltzeko egiten dien promesa. Eta promesa baten atzean beti daude espektatibak, erosleek espero dutena, alegia. Horregatik bereiztu egin behar da "marka nortasuna" eta "marka irudia"aren artean. Lehenengoa guk kontrolatu dezakegun guztia da: identitate korporatiboa, logotipoa, eskaintzen dugun produktua.... Eta bigarrena, "marka irudia", beste gauza bat da eta sekulako garrantzia dauka: jendeak buruan duena, nola ikusten gaituzten, hain zuzen ere. Beraz, esperientziekin lotutako zerbait da. Publizistok etengabe biak berdintzeko ahalegina egiten dugu, eta horri markagintza edo branding-a deitzen diogu".

Merkatariek marka sortzeko prozesu horretan kontuan hartu beharreko beste kontzeptu bat posizionamendua da. "Posizio-

namendua ez da merkatuan daukagun zantia, posizionamendua da nire sektorean zerk egiten nauen desberdin. Jakin behar dugu zein den guk zehazki egiten dugun balio proposamena, zergatik etortzen diren guregana eta ez beste batengana. Batzuetan publizitatea beharrezkoa da mezua txertatzeko", azpimarratu zuen Estitxu Garaik.

Eta guzti honetan emozioek berebiziko eragina daukate. "Zuk jendearen bihotzetan sartzea, emozionatzea lortzen baduzu, hori oso inportantea da. Erreza da beste batek zure ezaugarri berdinak izatea, baina emozioekin ez da hau gertatzen. Praktikan zabaltzen diren denden %80 bost urtetan itxi egiten dira. Jendeak ez du asmatzen. Gakoa da desberdintzea, modu batean ala bestean zerbait desberdina topatzen saiatu behar gara".

Prozesu honetan motibazio desberdinak daude hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko, eta horietako bat motibazio sinbolikoa da, hau da, hizkuntza bat edo bestea erabiltza, hizkuntza horrek dauzkan konnotazio-

ak. Hizkuntzak lotzeko gaitasuna dauka, konfidantza giroa sortzeko ahalmena du. Zentzu honetan, Garairen esanetan, "zeintzuk dira euskarak pizten dituen asoziazioak? **Bertakotasuna** da lehenengoa. Euskara erabiltzean agerian geratzen da bertako denda edo bertako produktua dela. Horrekin batera beste ezaugarri bat **gertukotasuna** da. Bi ezaugarri hauek garrantzi handia daukate oso barneratuta dugulako bertan bertokoa kalitate onekoa dela. Euskarak balio erantsia dauka. Eleaniztasuna oso txertatua dago eta hori plus bat da".

Dikotomia bat dago tradizioaren eta modernotasunaren artean, eta nahi den eran aktibatu daiteke bata edo bestea. "Euskara oso hizkuntza ona da tradizioari eta gure arbasoei lotutako produktuak aktibatzeko; baina gaur egun, ez daukat zalantzarik, jendearentzat euskara gaztea da, modernoa. Erdarara jotzen zuen belaunaldi oso bat egon zen, hain zuzen ere, motibazio sinboliko horregatik, pentsatzen zuelako erdarak gure izakerari beste modernotasun bat emango ziola. Gaur egungo gazteek ez dute joera hori eta, oro har, euskara modernotasunarekin lotzen da".

Eibarren erosketetan nabarmen jeisten da euskararen erabilera eta hori akats bat da Estitxu Garaiaeren ustetan. "Nik merkatariei esango nieke: 'Ez erabili euskara euskaraz salbatzeko, agian euskarak zu salbatuko zaitu'".

"Nik merkatariei esango nieke: ez erabili euskara euskaraz salbatzeko, agian euskarak zu salbatuko zaitu"

Sozialisten donazioa jasotzeko martitzenean egin zen ekitaldian presidentearekin batera Euskadiko Polio Elkarteko hainbat kidek hartu zuten parte eta, euren esker ona azaltzeaz haratago, elkartearen eskaeren berri emateko aprobe txatu zuten. Horrekin batera, Polioaren Osteko Sindromeak eragindako bizimoduaren berri zuzenean euren ahotik entzuteko aukera izan zen.

MARIO FEIJOO (EPE-Euskadiko Polio Elkarteko presidentea):

"Administrazioari dagokio konponbiderako erabakiak hartzea"

- Noiz eta zergatik eratu zenuten elkarteak?

Gaitz berarekin kaltetutako jende asko zegoela ikusita, 2014. urtearen amaiera aldera hasi ginen taldea sortzeko biltzen eta iazko maiatzean aurkeztu genuen EPE Euskadiko Polio Elkarte Untzagako jubilatuko etxean. Hasieran dozena bat lagun hasi ginen batzen, baina poliki-poliki gero eta jende gehiago gerturatu joan zaigu eta gaur egun ehun bat kide gara. Izan ere, gutariko gehienok umetan polioa izan genuen, baina hori gairiditu eta nola edo hala bizitzan aurrera egitea lortu eta gero, bizimodu normalak-edo genituela uste genuenean, hara non gauza arraroak somatzen hasi ginela. Hasieran harridura izan zen nagusi, batez ere Osakidetza joan eta gai honen inguruan nolako hutsune eta gabeziak ikusten hasi ginenean. Polio Osteko Sindromea (SPP) gaixotasun neuromuskularra da, Munduko Osasun Erakundeak hala aitortzen du 2010. urteaz geroztik eta G-14 kodearekin sailkatuta dago, ICD-10 bertsioan eta, horrekin batera, Gaitz Arraroen zerrendan ere badago, ORP-HA-2942 kodearekin identifikatuta.

- Nondik dator edo nola sortzen da SPP delakoa?

Beste herrialde batzuetan ez bezala, Espainian ez zuten bakunazio masiborik egin, Francoren gobernuak hala erabaki zuelako. Izan ere, 1955. urtean polioaren kontrako bakunak existitzen ziren, baina herritar gehienak bakunatu barik geunden bitartean, dirua zutenek txertoa erosi eta ipintzen zutela jakin badakigu. Gauzak horrela, 1958. urtean gaixotasunak goia jo zuen eta, sasoko gobernuak epidemiarik ez zela egon behin eta berri errepikatu arren, gauzak oso bestelakoak izan ziren,



Alderdi sozialistak babajanari esker jasotako dirua martitzenean hartu zuten EPE-Euskadiko Polio Elkartekoek. Mario Feijoo (eskuman) presidenteak bere esker ona azaldu zuen ekitaldian.

galdetzen hasiz gero ia familia guztietan polioa izan zuen kideren bat dagoela ikusiko genukeen.

1976. urtera arte ez zuten bakunaziorik egin eta, beraz, ordura arte ez zuten lortu gaitza mendeen hartzea. Kalkulatzen dutenez, populazioaren %24-75 bitartean egon daiteke SPP-k eragindakoen portzentajea, Euskadin 1.600 bat izango gara. Izan ere, polioaren birusa agertzen denetik SPP-aren eragina somatzen hasi arte 25-40 urte igaro daitezke, baina kasu bakoitza ezberdina da, batzuetan aurretik hasten dira sintomak eta beste kasu batzuetan, berri, erorketa baten ondoren, edo beste gaitzen baten ostean... medikuek ez daukate oso argi oraindik, SPP-a berria ez den arren: Amerikako Estatu Batuetan 1970. urterako bazuten horren berri eta 2000. urteaz geroztik diagnostikoa egiteko irizpideak ezarrita zeuden. Hala ere, inork ez digu ezer argitzen, ezta konponbiderik ematen ere.

- Zeintzuk dira sintomak?

Geroz eta errazago nekatzen hasten zara, artikulazio eta mus-

kuluetan mina sentitzen duzu, kasu batzuetan hotz handia sentitzen dute, kontzentrazio falta ager daiteke... Praktikan, benetan garena baino askoz zaharragoak sentiarazten digu eta batetik bestera mugitzeko zailtasun haundiak daukagu.

- Eta sendabiderik dauka?

Orain arte ez. Gainera, gure gaixotasuna kronikoa da eta horrelakotarako errehabilitaziorik ez dago, ez hemen ezta Espainian ere. Horregatik administrazioari dagokion erantzukizuna bere gain hartzea, bere lana egitea eskatzen diogu eta horretan gabiltza.

1.190 euroko donazioa

Martitzen goizean, Eibarko Sozialistekin batera emandako prentsaurrekoan, EPE Euskadiko Polio Elkarteak otsailean egin zen baba-jan solidarioari esker 1.190 euro jaso dituztela jakinarazi zuen. Eneko Andueza alderdiko idazkariak azaldutakoari jarraituta, "eguraldia benetan eskasa izan zen, euria eta haizea kontra izan genituen, baina hala ere 400 razio saldu genituen, aurreko urtean baino 150 bat gehiago. Horregatik egun horretan babak prestatzeko eta saltzeko beharrean jardun zuten 30 boluntarioei gure eskerrik beroena helarazi nahi diegu eta, jakina, babak erosita lagundu zuten guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Oso pozik gaude ekimenak izandako erantzunarekin, baita EPE elkarteari laguntzeko aukera izateagatik. Izan ere, elkartearekin zein gaitzarekin oso lotura zuzena daukagu, gertu-gertutik ezagutzen dugu eta".

Eibarrek zazpi hillabetian aguantau zittuan egunero inguruko mendixetan eguzen faszisten kaiñoi-hotsak. 1936ko iraillian hustu zeben herrixa, baita 1937ko urtarrillian be eta, azkenik, definitibua izango zana apirillaren 24an dekretau zan. Beraz, egun horretan herritar gitxi eta erresistentziarik apenas. Aurretik Durangon izandako bonbardeuak gurera be iritsi bihar eta Legión Condor-ek apirillaren 24ko arratsaldian bota zittuan lehelengoko bonbak: hurrengo egunekuaren abixua. Apirillaren 25eko eguerdixan izan zan. Domeka zan eta kilometro eta erdiko altueratik, gitxi gorabehera, 100 kiloko 21 bomba eta 50 kiloko beste 103 jaurti zittuen. Su hartzen zeben bonbak izatia ez aparte, apurtzailiak be baziran, geruago eztanda egitten zebenak. Bomba horretako batek Casa del Pueblotik gertu zegan babeslekua joko dau, eztanda egin eta han zeguazen guztiak akabatuz. Eguerdixa amaitzian Eibarko erdigunia oroitzapena besterik ez da. Faszistak hamendik Gernikara joko zeben hurrengo egunian.



Errepublika eta frankismotik haratago

Apirillaren 14an Eibarren oin dala 85 urte II. Errepublikia aldarrikau zala ospatzen genduan moduan, oin dala 80 urte militarrek erregimenaren kontra altxatu ziran eta, ez hori bakarrik, 1937xan gure herrixa txikitu be egin zebelako. Martitzenian ...eta kitto!-n eskindutako hitzaldixan horren ondorenguen barri emon zeben Jesus Gutierrezek eta Josu Ibargutxik. Lehelenguak XX. mende hasieratik frankismoraiño errepaso historikua egin zeban eta bigarrena gehixago zentratu zan frankismuak lagatako ondori-xuetan, gaur egundaiño irauten daberen inpunidadia salatzeke.

I. Mundu Gerrarekin Eibarrek sasoi oparua bizi zebala esan zeban Gutierrezek: "Lubakietako gerra izan zan, hamengo arme-

kin egingo zana. Gerra amaitzerakuan izan genduan hamen krisixa". Bere datuen arabera, "bonbardeuarekin 140 etxe pribatu eta beste 840 etxebizitza bota zittuen, 87.000 metro kubiko hondakiñekin". Halanda be, Eibar Francok "adoptatutako" estatuko 101 herriren artian zegan, "Gernika, Zornotza eta El-

getarekin batera". Herrixa jasotzeko planetan sartu ziran "Errebalgo plazia, Bidebarrieta osua eta Ego ibaia estaltzia. Gerra aurreko produkziño osua 1954an errekuperatuko zan. Arrazionamendua 1952xan amaittu zan". Franco Eibarren hiru bidar izan zala esan zeban, "azkena Armeria Eskolan 1965ian".

Diktaduratik haratago

Frankismuak 40 urtetan egindakuen barkamenik iñork ez eskatziak erakusten daberen inpunidadia salatu eban, "alemanak be Gernikakua bereganatu eta eskatu daberenian". Trantsiziño eredugarritzat saltzen dabena alde batekuak amnistiatzeko balixo izan dabela eta "frankismoko egitura guztia demokraziara pasatu zala" ezer onartu barik adierazi zeban. Argentinan "ley de punto final"-ekin amaitziak bultzatu zeban hara jotzera hamen lortu ezin zan "justizia eta erreparaziñuaren billa". Naziñoartekuen babesa dakela esan zeban eta diru-laguntzak jasotzeko itxaropena erakutsi zeban. Eskoletan horren inguruko unidade didaktikua sortzekuaren aldeku be agertu zan Ibargutxi.



Josu Ibargutxi eta Jesus Gutierrez martitzenian eskindutako hitzaldixan.



1 tartak
1 enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com



KOLORLAN
P I N T U R A K




Bonbardaketa Eibarren

Datorren martitzenian, arratsaldeko 19:00etan hasitta, 1937xan bonbardaketa gure herrixan bizi izan zeben Julia Lanasek eta Kontxa Laspiurrek zuzeneko lekukotasuna emongo dabe Arrate Kultur Elkartian. Ekitaldixa Josu Iburgutxik moderatuko dau. Kontxa, Bergaran jaixo bazan be, lau urterekin etorri zan gurera famelixa osuarekin. 1963tik aurrera euskerazko irakaslia izan da hamen Eibarren. Julia Gernikan jaixotakua da eta han bizi da gaur egun be. Hitzaldiaz aparte, Eibarren bonbardaketia gertatu eta gero herrixa zelan geratu zan erakusten daben argazkixen erakusketia ikusi leike Arrate Kultur Elkarteko Topalekuan maiatzaren 1era arte. Astegunetan arratsaldetan bakarrik (19:00-21:00) eta asteburuetan goizez eta arratsaldez (12:00-14:00 eta astegunetako ordutegixan)

Intxortako erresistentzia eguna domekan Elgetan

Ekitaldiz betetako asteburua izango dabe Elgetan eta, holan, bixar 18:00etan "Elgeta gerra garaian" izeneko bisita gidatua egingo dabe, 19:30xetan Orkestra Elektrotxarangak joko dau eta 22:30xetan Memoriaren Gauda ospatuko dabe, Perlak eta Gose taldiekin. Halanda be, domekakua izango da egun nagusixa, emakume erresistente eta errepresaliatuerei egingo detsen omenaldixekin. Egitaraua honakua izango da: 10:00etan, gudari eta gonbidatuen hamarretakua; 10:30xetan, gudari eta milizianuen igoeria; 10:40tan, lore-eskintza Salbadorreko monolituan; 11:30xetan, errekreaziñua Intxortako Atian; 12:00xetan argazkixak etara eta lubakixak ikusteko aukeria; 12:30xetan, martxia Elgetara; 13:00etan Emakume Erresistente eta Errepresaliatuerei omenaldixa plazan, Ain_1 eta Gasteizko Abesbatza Errepublikanuen parte-hartziarekin. 14:45tan bazkarixa egingo dabe frontoian eta, egun osuan zihar, Memorixa Historiko taldien material azokia egongo da.

Informaziño gehixagorako:
www.intxorta.org
<https://es-es.facebook.com/intxorta1937>



EUSKARAREN TRANSMISIOA

egitaraua

- 08:45 - 09:00:** Akreditazioa eta dokumentazioa
- 09:00 - 09:15:** Ongi-etorria
- 09:20 - 10:05:** "Gazteek ez dakite euskara hizkuntza gutxitua dela"
Xabi Aizpurua Ugarte, UEMA
- 10:10 - 10:55:** "Etorkinen integrazioa eta bertakoen egokitzapena"
Jon Maia, bertsolaria
- 11:00 - 11:45:** "Euskera, tresna eta aukera merkataritzan"
Estitxu Garai, EHU
- 11:45 - 12:05:** **ATSEDENALDIA**
- 12:05 - 12:25:** "Egian euskaraz bizi nahi dugulako"
Aitziber Gurutzeaga, BAGERA
- 12:30 - 12:50:** "Eskola eta familiak elkarlanean euskara ikasteko"
Elizabeth Lema, Eibarko Arrateko Andra Mari ikastetxea
- 12:55 - 13:15:** "Eusle programa ikastetxearen esparruan aplikatua"
Juani Iriondo, Eibarko San Andres ikastetxea
- 13:20 - 13:40:** "Gurasoei zuzendutako motibazio ekimena: bizia delako!"
Deñe Zabalo, Elgoibar Ikastolako Guraso Elkarte
- 13:45 - 14:40:** "**MAHAINGURUA**": Xabi Aizpurua, Estitxu Garai, Aitziber Gurutzeaga, Jon Maia
Dinamizatzailea: **Jaime Altuna**
- 14:40 - 14:45:** AGURRA
- 14:45:** BAZKARIA

mintegia

Maiatzak 3, asteartea

IZEN EMATEA zabalik

www.etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus 943 20 09 18



Manu Goiogana (bertsolaria):

“Bertso Eskolan gaztetxoek primeran pasa dezakete”

28 urteko Manu Goiogana bertsolari irundarrak sei urte daramatza lan kontuengatik Eibarren bizitzen. Bertsolaritzan ibilbide luzea egin du Irun eta inguruko herrietan eta gaur egun Eibar eta Durangoko bertso-eskolan dihardu jo eta ke lanean. Gipuzkoako bakarkako hiru txapelketetan izandakoa da, eta pasa den urteko txapelketan final laurdenetan kanpoan geratu zen arren, final zortzirenak irabazi zituen. Bere taldekideekin batera Eibarko bertso-eskola berpiztu nahi du, umeez eta gaztetxoek bertsolaritza ikasten primeran pasa dezaketela uste duelako.



Apirilaren 30ean Legarre Gain elkarteko bertso-bazkarian izango da Goiogana, Jokin Bergararekin batera.

- Zenbat kide zarete Eibarko bertso-eskolan?

Bost edo sei ikasle elkartzen dira Aimar Goenagarekin, hamabi urte ingurukoak. Hau euren bigarren urtea da. Aurretik beste talde bat zegoen, orain hamasei edo hamazazpi urte izango dituztenak, baina uzten joan ziren. Askotan bertso-eskolara apuntatzen direnak denetara apuntatzen direnak dira eta gero gehienek utzi egiten dute beste zerbait nahiago dutelako, edo ordutegia egokia ez delako... Irakasle eta antolatzaileak, berriz, orain lau pertsona gara, eta hori oso gutxi da, kontuan izanik dauden bertso-saio gehienak gure eskuek pasatzen direla, izan gaiak jartzeko, izan antolatzeko,...

- Zergatik ez dira gazte gehiago animatzen?

Kontua da, eta alde honetatik desbentaja dugu, futbola, kirola, dantzak eta horiek denak zortzi edo hamar urterekin hasten direla. Bertso-eskola zortzi urterekin hasteak zentzu askorik ez duela uste dut. Jolas batzuk edo egingo zituzten beharbada, baina bertsoetan hasteko hizkuntzari dagokionez maila bat izan behar duzu. Beraz, gurekin hasten direnerako, hamairu bat urterekin, ez dakit zenbat eskolaz kanpoko ekintzetan ari diren jadanik.

- Nola ikusten duzu bertsolaritza Eibarren?

Eibarren bertso-saioen eskaintza bada- go urtean zehar, baina ez da herri oso bertsozalea, uste dut. Potentziala badago Eibarren, zalantzarik gabe, eta badut sentsazioa pixka bat tira egin behar diozula bertsozaleari hurbiltzeko, eta hori horrela ezin da izan. Gure lana eskaintza ematea da, eta jendearen eskuetan dago etortzea eta disfrutatzea.

- Joan den astean izan ziren pare bat saio Eibarren...

Aurreko asteburuan Gipuzkoako Bertso Eskolen eguna egin zen Eibarren, eta oso egun polita izan zen. Hor ikusten da gazteek ondo pasa dezaketela bertsoaren bueltan. Eta barixakuan Plazatik Gaztetxera izan zen Eibarko gaztetxean; gazteak bertsoetan animatzeko proiektu ona dela uste dut.

- Bertso-bazkari eta afariak edo txapelketak nahiago dituzu?

Nik hobeto pasatzen dut bertso-afarietan, baina horra iristeko eskaparate handiena txapelketak dira. Beraz, txapelketak derrigorrezkoak edo badira gerora aukera gehiago izan ahal izateko. Dena dela, edozein tokitan bertsoetan ibiltzean gure saiorik onena egin behar dugu; Nahiz eta eszenatokia eta bertsoaren eta ikuslearen exigentzia desbedina izan, errespetuz, maila berean izan behar gara. Egia da txapelketarako gehiago entrenatzen garela, baina emaitzak urte osoan nabari dira.



PAKITA ODRIOZOLA AGIRREBEÑA (Jenaro Garateren alarguna) 2016-IV-16

“Zerua argitu duzun moduan, zure galerak nire begiak umeldu ditu.
Milesker eskainitako une gozo eta triste guztiengatik” -Jesus-

ESKERRIK ASKO egun hauetan zuen
maitasuna eskaini didazuen guztioi.

Haren aldeko meza ospatuko da hillaren 23an (zapatuan),
19.00etan hasita, San Pio X. parrokan.



Bost urte gazteen aisialdia betetzen

Badira bost urte Muzategi kaleko gaztelekuak atek zabaldu zituela eta denbora horretan lokalaz zein bertako eskaintzaz gozaten ibilitakoak ez dira gutxi. Arduradunek azaldu-takoari jarraituta, batzbeste 100 bat neska-mutil ibiltzen da Indianokuan, "neguan gehiago eta udan gutxiago etortzen dira, baina hori da batzbeste-koa". Adinari begiratu gero, gehienak (%90 inguru) 12 eta 14 urte bitartekoak izaten dira, "hortik gorakoek ahal bezain laster koadrilakoekin batera lokala alokatzen dute-eta".

Gaztelekuko begiraleek eta gazteek elkarlanean antolatzen dituzten jarduerak era guztietakoak izaten dira: ikastaroak, lehiaketak, jokoak, jaiak, taille-rrak... Horietako gehienak gaztelekuan bertan egiten dira, baina batzuetan kanpora joate-



ko irteerak ere antolatzen dituzte. Apirilko egitarauaren barruan, besteak beste, festa arabiarra antolatu zuten Aste Santuko oportunitate bueitan: "Euren musika, ohiturak, jaiak... ezagutu ditugu. Jaiak egin genuen, datilekin pasta batzuk sukaldatu genituen eta hango musikaz giroa hennarekin tatuajeak egiten ibili ginen". Apirilaren 30ean,

berriz, perkusio afrikarra ikasteko aukera egongo da DBH-koentzat antolatu duten dohai-neko ikastaroan. Eta hiru aste-burutan Gazte Txef III. Txapelketa burutuko dute gazteek, taldeka.

Arrainekin lo egin nahi?

Bestalde, urteroko moduan, Gaztetan programaren barruan LH 5. eta 6. mailako ikasleek

Donostiako Akurium-ean arrainekin lo egiteko aukera izango dute horretarako prestatu duten irteerari esker: "Arrainekin lo egiteaz gain, Errealaren museoa ikusiko du-gu eta, ondoren, Zarautzera jo-ango gara, han bazkaltzeko". Txangoa maiatzaren 13an eta 14an egingo da, baina joan nahi dutenek aurretik izena eman beharko dute (izen-ema-tea domekara arte egin daite-ke, gaztelekuan 18:00etatik 20:00etara edo interneten, www.astixa.eus webgunean). Prezioa 30 eurokoa da. Bestal-de, plazak mugatuak direnez, dauden tokiak baino eskaera gehiago jasoz gero zozketa egingo dutela azaldu dute eta, behin zerrendak itxita, guraso-ei azalpenak emateko bilera egingo dute maiatzaren 5ean, 17:30ean.

Alemaniatik artxibora eta museora bisitan



UNI Eibar-Ermua institutua-rekin ikastetxe-truke pro-graman parte hartzen dihar-duen Alemaniako ikasle tal-de batek gure herriko historia eta iragana ezagutzeko au-ke-ra bikaina izan du: martitzen goizean Albstadt (Baden-Wurtemberg) Alemaniako herri-tik etorritako 21 ikasle-k Eibarko Udal Artxibora bisita interesgarria egin zuten eta, horri esker, gure herriaren

memoria kolektiboa gorde-tzen duten lekua bertatik ber-tara ezagutu zuten. Horrekin batera, Hauswirtschaftliche Schnie eskolako ikasleek gu-re ondare industrialaren berri jaso zuten Armagintzaren Museoa eurentzat prestatu-tako bisitan. Gure artean emandako egunak interese-ko beste toki batzuk ezagu-tzeko aprobetxatu dituzte gazteek.



Juan Mª Aguirregomezcorta Garitaonandia (2016-IV-13)

Familiaren izenean, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



gremioen gida



ANTENAK

AROTZAK

ELEKTRIZITATEA

BALATZ c.a.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08
balatz@euskalnei.net Faxa. 943 20 04 94

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.
Ego Gain, 9 ac 677 51 24 62
ego.luz@hotmail.com 630 95 73 45
943 20 06 97

Antena instalazioak
TDT / Satelitea
Informatika Zerbitzua
Sareak /Antibirusa
Sistema Operatiboa
Miguel Angel Garcia
Mugikorra: 609 250 858
garciamiguel@movistar.es

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad iparelek s.l.
INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS
← →
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50
E.I.T.
AJT zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea esk.

HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu deitu 943-206776 telefono zenbakira

ERREFORMAK

AINARAVESGA ARKITEKTURAK

Urkizu pasealekua 7 behea
Tfnoa: 639 028 256
ainaravesga@hotmail.com
www.vesgaarkitekturak.com

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobear
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea



PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171

www.multiservicioeibar.com Barrena, 21-1.F



KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@crystaleriaacha.com

ERAKUSKETA

% eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

MALVAR

PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ

PINTURA
OROKORREAN

BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com



TREJO
GARBIKETAK S.L.


Tel: 943-752557
Faxe: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta
mantenimendua

BULARRETIK MINTZORA egitasmoa Eibarrera iritsi da

Gaur egun Euskadiko hainbat liburutegitan martxan dagoen egitasmoa Eibarrera iritsi da. Ume txikien irakurketa ohituren sustapena eta euskararen transmisioa egingo da honen bidez hiru adar edo zutabe kontuan hartuta: etxea, eskola eta Udal Liburutegia.

Momentuz, San Andres ikastetxea animatu da eta buru belarri dago proiektu honetan murgilduta. Baina datorren ikasturterako beste ikastetxe batzuk ere animatu dira: Mogel ikastola, LaSalle, Arrateko Andra Mari eta Amaña ikastetxeak hain zuzen ere.



Egitasmoaren protagonistak Eskola, euskarazko haur literaturari lekua eginda eta formazioa jasota literaturaren edukiaz umeekin gozatzeko, kalitatezko testuak erabilita: erritmoa, ahazkotasunaren kaden-

tzia, poesia, narrazioa, jolasak... Literaturari egunero egiten zaion tokia haurrentzat ohitura bilakatu dadin, euren garapen emozional, afektibo eta intelektuala gartzeko asmoarekin.

Udal Liburutegiak, bere aldetik, egitasmoaren kalitatezko liburuak apropos ipinitako txoko batean erakutsiko ditu, eta umeak gurasoekin etorriko dira eskolan jasotako motxila ibiltarian aukeratutako liburuak **etxera** eramateko. Bertan, giro goxoan, aitarekin edo amarekin irakurriko dute. Ipuinaren kontaketa gure esperientzia bital guztia pasatzen diogu haurrari. Orduan haurra bere baitara biltzen da eta hausnarketa horrek kontzentrazioan, ulermenean... laguntzen dio.

Liburuak



Honen guztiaren atzetik **Galtzagorri Elkarte**a dago, eurak dira formazioa ematen dutenak, bibliografia prestatzen dutenak eta egitasmo honen iturburu direnak.

Eibarko Udalak diruz lagunduko du egitasmoa **Euskara Saitetik**, ikastetxeetan eta gurasoentzat emango den formazioa bere gain hartuta.

Ea bada denon artean lortzen dugun umeengan irakurzaletasuna piztea euskarazko literatura eta euskararen transmisioa oinarritzat hartuta.



eva alberdi
-UDAL LIBURUTEGIA-

Musika

"Bidaia" - ZINGIRA

Rock progresiboa jotzen dute Oñatikoe, abesti luze bezain landuekin. Azken aldian inguruan entzundako rock orijinalena da Gitarra eta baterietaz at, sintetizadoreen bidetik jo dute oraingoan, soinu berezi hori lortzen asmatuz. 350 aleko argitalpena da lehen disko hau.



NORTE APACHEren "JUANITO LAGUNA" diskoa

Antonio Berniren iruditeria soziala euna egin eta injustizia jasaten duen herritar orori eskainitako diskoa dugu, zuzena eta aho-bilorik gabea; Argentinan, Kaledonia Berrian zein Euskal Herrian, zoritxarrez, oinarritzko eskubideen aldeko borroka berdintsua delako. *Hazi berriak* kantan euskal rapari egindako erreposoa diskoan ere irudikatu dute, Jon Eyherabide (MAK), Manugaitz (Selektah Kolektiboa), Rufoh (121 Crew) edota Nortzzone (Nizuri Tazuneri) izan baitituzte kolaboratzaile. Gehiagorako tarterik ez eta kanta bat azpimarratzekotan: Killing in the Name of, Rage Against the Machine buruan, Luciano Arruga eta Iñigo Cabacas gogoan.

"Ezagutu, onartu, maitatu" - MADDI

Diskoari izena ematen dion kanta azken pieza da, Ruper Ordorikaren abestia izan zitekeena. Soinu fina lortu du eta hobe dela isilik egotea dio lehen abestian. Lasai hasten bada, leherketa ikaragarriarekin jarraitzen du gero, berriro isiltasunera itzultzeko.



37 parte-hartzaile canikrosaren lehen edizioan

Aurreko domeka goizean Aixola urtegiaren inguruan jokatu-tako canikrosak jarraipena izango du hurrengo urteetan, proba antolatu duen Marcan Huella elkarteok adierazi dutenez. Lau kilometrotik gorako proban 37 binomiok hartu zuten parte eta Imanol Cid izan zen irabazlea "Atila" txakur mestizoarekin: 13 minutu eta 54 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko. 26 segundora helmugaratu zen Andoni Isasi, "Tyson" pitbullarekin; eta bigarrenarik 27 segundora Asier Perez de Mandiola, golden arrazako "Xuri"-rekin. Canicros modalitatean parte-hartzaileek txakurra gerrira lotuta egiten dute antxintxiketan eta animaliei ezin zaie behartu korrika egitera.



Antolatzaileak pozik daude domekan izandako parte-hartzaileekin.

Katu Kalek maila galdu du Azkunerekin 62-61 galduta

Denboraldi bakarra iraun du Eibarko saskibaloitzaileek lurreko bigarren mailan eta ia zegoen lortutako kantxa berean esan dio agur maila berriari. Modu ankerrean gainera, luzapena amaitzeko bi segundoren faltan hiruko bat jaso eta gero. Lehen laurdena amaituta eibartarrak 13-17 irabazten zihozten, atsedendian donostiarrak puntu bakarrarengatik 26-25, hirugarren laurdena 29-39arekin amaitu zen eibartarren alde, baina laugarrena donostiarrak izan zen eta segundo gutxi batzuen faltan Willek sartutako hirukoarekin (22 punturekin onena izan zen Katu Kalen) luzapenera iristea lortu zuten. Azken horretan, minutu erdiren faltan lau puntu aurretik zeuden eibartarrak, baina ez zuten jakin izan alde horri eusten. Emaitza horrekin, Eibarko taldeak maila galdu du matematikoki.



sartutako hirukoarekin (22 punturekin onena izan zen Katu Kalen) luzapenera iristea lortu zuten. Azken horretan, minutu erdiren faltan lau puntu aurretik zeuden eibartarrak, baina ez zuten jakin izan alde horri eusten. Emaitza horrekin, Eibarko taldeak maila galdu du matematikoki.



Ez da Durangok liga irabazten duen lehen aldia. Artxiboa

Etzi 11:00etan Kirolbet.es Sariaren seigarren edizioa

Durangok irabazi zuen aurreko asteburuan Eibarko foball-zaletu torneoaren liga-txapelketa eta Sagarra Ermuko torneoaren garailearen aurka jokatu du bi txapelketa arteko seigarren edizioaren finala. Partida goizeko 11:00etan jokatu da Ermuan. Kiroljokoa izenarekin 2011n hasi zen torneoak orain arte Eibarko ordezkari bi eta Ermuko hiru izan ditu irabazle: Centro Gallegok penaltietan irabazi zion Joserautori 2011n, husna berdindu eta gero; Koskorrek 3-1 irabazi zion Boavistari 2012an; Txoko Ermuko azken ordezkari horri penaltietan nagusitu zitzaion 2013an bana berdindu ondoren; eta Durangok final horretan galdu egin du azken bi urteotan, Murrukarekin 0-2 2014an eta Sagarrarekin, penaltietan, bana berdindu eta gero 2015ean.

Bestalde, Kirolbet liga-torneoa amaituta, Durangok bi puntuko alde atera zion Bar Txokori, azken jardunaldian biek irabazi ondoren. Asteburuko datu aipagarrien artean, L.P. Machado Tankemansen Fontaneria Mujikari sartutako gol-zaparrada daukagu (8-0) eta horretan Yosuk sartutako dozena erdia. Horri esker, aurrelari horrek berdindu egin du Azkena Adahiko Keparekin goleatzaile nagusi moduan (biek 29 lortuta), Bar Txokoko Romeritoren aurretik (23 gol).

Kirol-eskaladako ikastaroa

Maiatzaren 14 eta 15eko astebururako eskaladako ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Mendi Federazioak. Ikastaro hori Egin-Aitzondon egingo da eta honako helburuak izango ditu: Has-tapen ikastaroa materialarekin eta mundu bertikalarekin oihit edo etxekotzea, luze bakarreko bide hornituak dituzten eskalada eskoletan segurtasunez mugitzeko; eta Trebakuntza ikastaroan, ordea, hornituriko hormetako eskaladan jardungo dute, horko horma luzeetan burujabetasunez mugitzeko. Informazio gehiagorako: <http://www.gmf-fgm.org/kurtoak.php?id=30>



JAVIER GOROSABEL URKIA "FIRI"

I. urteurrena: 2015-IV-21

*"Zure indar eta kemena gogoan
elkarrekin izandako une zoragarriak ahoan
konpartitzen ditugu sarri sutondoan"*

ZURE LAGUNAK



Deportiboko mendizaleek Kantabria Mendilerroko Zeharkaldiari ekin diote

Zapatuan Berganzosetik Abalosera egindako irteerarekin ekin zioten bost etapetan banatu duten zeharkaldi horri eta hurrengo etapak maiatzetik irailera doan tartean osatuko dituzte (bina hilabete bakoitzean): maiatzaren 7an Peña Herreratik Pipaonera joango dira, Cervera gainera (1.385 m.) pasatuta; maiatzaren 21ean Pipaonetik Lagranerainoko bidean Larrasa (1.454 m.) gaudituko dute; uztailaren 9an Lagranetik Bernedora joango dira, Peña Leonetik (1.392 m.) pasatuta; eta, azkenik, irailaren 17an Bernedotik Marañonera egingo dute txangoa, Peña Altatik (1.243 m.) pasata.

Osatutako lehen etapan Toloño mendira (1.271 m.) igo zuen 42 lagunez osatutako mendizale taldeak, 20 bat kilometroko distantzia egiteko. "Autobusa ezin izan zen Berganzosera heldu eta horrek bide gehiago egitera behartu gintuen". Erdi mailako zailtasuna zuen ibilbidea osatu zuten Deporrekoek, "paraje ederrenetan euri-zaparrada bikainez lagunduta, hor ez genuen zorte handirik izan".



Boskotea Toloño mendian. Periko Iriondo

Somosen garaipena bigarrenaren kantxan

Somos Eibar Eskubaloiak, bigarren zati bikaina egin ondoren, Trapagaran bigarren sailkatuari 29-32 irabazi zion estatuko 1. mailako partiduan. 7-2 galtzen hasi eta gero, Fernando Fernandezek eskutatuko hutsarteak defentsa lana hobetzea ekarri zuen eta baita atsedendira gol bakarrarengatik galtzen joatea ere (12-11). Eibartarren bigarren zati handiak bizkaitarren erresistentzia txiki laga zuen eta hiru golen aldearekin amaitu zen partidua. Somos-ek bere osotasunean partidua gailantatu egin bazuen ere, hegalekoak eta pibota nabarmendu ziren, euren artean 22 gol lortuta: Mikel Zuloaga piboteak 9 sartu zituen eta Eneko Garetxan 7.

Avia Eibar Eskubaloia aurtun eratuako senior nesken taldeak 22ren artean 16. postuan amaitu du Euskal Ligan bere lehen urtean eta orain Gipuzkoako Kopari ekingo dio. Denboraldi bikaina egin du Haritza Eibarrek eta, bigarren amaituta, Euskal Ligara igotzeko fasean izango da hemendik aurrera.



Pilota-jaialdia gaur Astelenan

Errendimendu Udaberri Txapelketako infantil mailako lehia izango da Katedralean. Hor Fuentesekek eta Sanchezek osatutako Klub Deportiboko bikoteak Debako Euskal Jolasekoen ordezkariak egingo die aurre. Jaialdia 19:15ean hasiko da, Deporreko pilota-eskolako benjaminen mailako lagunarteko partiduekin: Oruezabal eta Ibarra Amuategi eta Arrietaren aurka.



Urbateko waterpolistek Santoña izango dute aurkari mailari eusteko

Euskal Herriko Ligaren I. Mailan azken postuan amaitu eta gero, eibartarrek azken aukera izango dute goiko maila horri eusteko. Gogorra izan da denboraldia Davide Cerchik prestatutakoentzat maila eskuratu berria eta Nautica azkenaurke-egandik puntu bakarrera geratu ziren Urbatekoak. Portugaleteko taldea, baina, zigortu egin dute jokatu ezin zuten igerilari baten parte-hartzeagatik eta horrek ateak zabaldu dizkio Urbati promozioa jokatzen. Bi partidua bereganatzen duena izango da irabazle eta horietako lehenengoa Santoñan jokatuko da domekan, 13:20an hasita. Hurrengo bi neurketak Eibarren izango dira. Talde guztien arteko gazteena da eibartarrena (17 urte batezbeste) eta kantabiarrek, bestalde, Omar Carmenati kubar handia dute euren lerroetan.

13 eibartar Azkoitia-Azpeitian

Emmanuel Bettek eta Zulema Fuentes Pilak irabazitako aurreko zapatuko Azkoitia-Azpeitia probaren 23. aldian 13 eibartar helmugaratu ziren. Bettek bigarren urtez jarraian irabazi zuen maratoni erdian 1h01'47" denbora egin zuen eta Fuentesek, bestalde, ezustekoa eman zuen afrikar guztiei aurre hartuta. Guztira 649 atletak amaitu zuten proba eta honakoak izan ziren 13 eibartarren postuak:

103- Jose Fdez. Roitegi	1h24'51"
120- Jon Zubia	1h26'52"
153- Pello Berrizbeitia	1h27'45"
160- Liher Prieto	1h28'13"
165- Raul Fernandez	1h28'31"
242- Juan Manuel Ferreiro ..	1h33'24"
326- Martin Irigoien	1h38'00"
357- Unai Artetxe	1h39'04"
378- Juan Irigoien	1h40'34"
471- Izaskun Aizpiri	1h45'40"
473- Alejandro Telleria	1h45'42"
571- Ina Telleria	1h53'55"
645- Iñigo Guruzeta	2h09'51"



Aitziber Urkiola podiumaren ertzean Gipuzkoako duatloi motz txapelketan

Eibartarrak laugarren postuan amaitu zuen aurreko asteburuan Azkoitiko zirkuitu barruan jokaturako Gipuzkoako duatloi motz txapelketa. Han izan ziren Delteco Eibar Triatloi Taldeko bost ordezkari ere, eta euretako bat -Jon Illarramendi- bigarrena izan zen beteranoen V2 mailan. Illarramendik 35. postuan amaitu zuen absolutu mailan, aurretik sailkatu zen Gonzalo Saez (31.a) eta atzetik izan zituen Roberto Gartzia (36), Iñigo Unanue (57) eta Hector Gisasola (78).



Gonzalo Saez eta Iñigo Unanue Azkoitiko proban.

Eibarrek Deportivo hartuko du bihar Ipuruan (22:05)

Eibarki lehenbailehen komeni zaio herenegungoa ahaztea, Valentzian 4-0 galdu eta gero. Horren mendekua hartzeko aukeraz baliatu beharko da bihar gauean Riazorren Bartzelonaren aurrean zortzi gol jaso zituen Deportiboren aurrean (talde biek bigarren itzuli kaskarra dihardute egiten). Bestalde, harrobiari begira, jubeniletan Eibar Urkok liga amaitu zuen aurreko asteburuan Durangori 3-0 irabazita eta, horrela, sailkapenaren erdialdean amaitu du, azken urteotako postu onenetakoan; orain Euskal Kopa jokatu beharko du. Jubeniletako Ohorezko Mailako taldeak 0-3 irabazi zuen Oñatin.



Gorka Etxaniz garaile eta Mikel Urkia eibartar onena San Migueleko jaurtialdian

Aurreko zapatuan San Migueleko bolatokia jokaturako Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketako bigarren jardunaldian Floreagako Gorka Etxaniz nagusitu zen, bederatzi txirlo botata. Seirekin sailkatu ziren atzetik Gorka Bereziartua (Elgeta), Luis Guenaga (Lastur) eta Javier Osoro (San Miguel) eta bost txirlo etzan zituzten San Migueleko Unai Loiolak eta Asola Berriko Mikel Urkiak.

Sailkapen orokorrean ere Etxaniz da gaur egungo liderra, alde handiarekin; Unai Loiolak bederatzi txirlorekin jarraitzen dio eta Javier Osorok zortzirekin. Mikel Urkia Asola Berriko ordezkari onena da, zazpirekin. Bihar jokatuko dute Azpeitiko Garmendipeko bolatokia txapelketako hirugarren jaurtialdia, betiko lez 17:00etan hasita.



Urkiko neskak lidergoan

Domekan Unben Urolari 2-1 irabazita, eibartarrak bakarrik geratu dira sailkapenaren lidergoan. Asko jokatu behar izan zuten talde bietako jokalariek gola sartzeko, baina eibartarrek ondo merezita eskuratu zuten garaipena. Miren Alonsok gola sartu aurretik bitan jo zuten azpeitiarren zutoinean eta Nagorek lortutakoarekin lasaiago hartu zuten ondorengo. Aurreko asteburuan ere eibartarrek ondo erakutsi zuten Cristina Arratibel eta Laura Prieto prestatzailei esker lortutako maila, Arizmendirren zelaian 0-9 irabazita.



Rosa Gil Tesouro

II. URTEURRENA (2014-IV-24)

“GURE BIHOTZETAN ZAUDE”

Felipe, Mikel, Pablo, Jon, Zalao, Anneke, Angustias, nebak eta koinatak





FERNANDO SAENZ DE UGARTE
(Dantzas konpainiako zuzendaria)

“Estilo desberdinetako bost pieza eskaintzen ditugu Aureon”

Bihar, apirilak 23, *Aureo* dantza-ikuskizunarekin gozatzeko aukera paregabea izango dugu Coliseo Antzokian. *Aureo* ekoizpenak dantza estilo ezberdinen “dastaketa” izan nahi duten bost lan koreografo txiki hartzen ditu. Bere ardatza nazioarteko kalitatea da, eta baita ikusle guztiak asetzeko gai izatea ere. Ikuskizuna 20:30ean hasiko da eta sarrerak 8 eurotan egongo dira salgai.

- Zer eskaintzen digu “Aureok”?

“*Aureo*” gure azken produkzio handia da. Dantzas konpainiaren misioa nazioarteko kalitatea edozein lekutara eramatea da, eta horretarako Europa guztiatik iritsitako dantzari gazteek parte hartzen dute “*Aureo*”n. Bost pieza koreografo desberdin eskaintzen ditugu, dantza garaikideko estilo desberdinak nahasiz. Gainera, ikusle guztiarentzat atsegina eta erraza izatea nahi dugu, ikuslego adituaz gain dantza ikuskizunik inoiz ikusi ez duenak ere gozatu dezan. Kalitate handiko dantzariak eta koreografoak daude bertan, eta guztion artean artelan ederraosatzen dute.

- Beraz, esan daiteke zeuen zereginean gazteei aukera emateak berebiziko garrantzia daukela.

Gure lana dantzari gazteei lehenengo aukera profesionala ematea da. Europa osotik etorritako dantzari gazteak dira eta lehenengo kontratua gurekin egiten dute. Gazteei aukera ematen espezializatu gara, eta gure lanetan beti dago Euskal Herriko dantzari gazteentzat lekua. 80 dantzari inguru pasatu dira Dantzas Konpainiatik, horietako batzuk gurekin jarraitzen dute eta beste askok nazioarte mailan egiten dute lan. Sorkuntza, ekoizpen eta birako prozesuak prestatzeko, birziklatzeko eta bikaintasuna

lortzeko prozesu gisa ulertzen ditugu eta, batez ere, lantaldea indartzeko aukera gisa, eta bertako zein nazioarteko profesionalen eta sortzaileen, gazteen eta adituen artean esperientziak partekatzeko aukera gisa.

- Koreografoen artean ere hemengoak eta kanpokoak daude, ezta?

Gure ekoizpenetan mundu osoko koreografoak gonbidatzen ditugu eta proiektu desberdinak proposatzen zaizkie. Eta koreografo berriendako ere aukera paregabea da. Oso aberasgarria da hemengo eta nazioarteko artistek elkarrekin jardutea, euren ezagupenak partekatzeko aukera ematen duelako.



“Argazki baten istorioa” bisita

Indalezio Ojangureneg egindako argazkia oinarritzat hartuta, **Nerea Alustiza historialariaren eskutik bisita gidatuak** egiten dabilta udaletxean eta, DBHko ikasleentzat ez ezik, herritar guztiak izango dute parte hartzeko aukera. Bisitak hiru atal izango ditu: udaletxearen aurrean Eibarren II. Errepublikari aldarrikatu zenekoa azalduko da; ondoren photocall-a egingo da udaletxe-ko patioan, emakumeak bozka ematen erakusten duen argazkiaren erreproduktzioarekin batera. Argazkia azalduko da eta baita II. Errepublikan emakumeek lortu zituzten eskubideak ere; eta, amaizteko, udaletxe bakoia bisitatuko da. Bisitak 40 minutuko iraupena izango du eta udaletxe sarreran, argazkiaren ondoan hasiko da, jarraian irakur ditzakezuen egun eta orduetan: gaur, 19:00etan eta 20:00etan; bihar (zapatua, hilak 23), 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan; etzi (domeka, hilak 24), 12:00etan eta 13:00etan; eguenean (apirilak 28an) eta barixakuan (29an), 19:00etan eta 20:00etan; eta datorren asteko zapatuan (30ean), 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan.

“Irakurtzea, primerakoa!”

Udal Liburutegiak eta Eibar KE-k “Irakurtzea, primerakoa!” goiburuko kanpainari ekin diote, irakurketaren garrantzia azpimarratzeko asmoz eta, horren harira, hainbat ekimen antolatu dituzte: atzo jokalaria bi liburutegian egon ziren bisitan, Klubaren 75. urteurrenaren inguruan Jesus Gutierrezek egindako liburua aurkezten eta liburutegiaren sorreraren 109. urteurrena ospatzen. Eta bihar, berriz, 12:00etan 75. urteurrenako liburua El Corte Inglesean (liburudenda sailean) aurkeztuko dute eta nahi duenak liburua %10eko deskontuarekin eta Kike Garciak eta Jaime Jimenezek sinatuta erosteko aukera izango du. Eta gauean, 22:05ean hasiko den partiduan, Liburuaren Nazioarteko Eguna aldarrikatzen duen pankartarekin zelairatuko da hasierako hamaikakoa, “irakurtzearen garrantziari buruz umeak eta helduak konzientziatzeko asmoz”.



Hezkuntzaren Aldeko Astea

Heziketa eskubideak defendatzen dituen Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainarekin bat eginda, mundu osoan eskubide horren aldeko ekimenak egingo dira datorren astean, apirilaren 25etik 30era bitartean. Aurtengo goiburua "Eskolak babesa ematen dit. Babes dezagun finantzaketa" da eta Eibarren ere horri lotutako ekimenak antolatu dituzte Egoaziak eta liburutegiak elkarlanean. Hasteko, Heziketaren Aldeko Ekintza Mundialaren Asteko materialen eta gaiarekin lotutako liburuen eta pelikulen interesgunea eta gida ipiniko dituzte liburutegian. Astelehenean, berriz, 17:30etik aurrera bideo-foruma egingo dute liburutegian Pascal Plissonek zuzendutako "Camino a la escuela" (Frantzia, 2013) filmaren inguruan. Martitzenean, toki eta ordu berean, "Las escuelas del mundo" liburuan oinarritutako tailerra egingo dute umeentzat. Eta urteroko moduan, ekimenak agurtzeko herriko ikastetxeek ekitaldia egingo dute eguenean, 11:30ean Untzagan.



Kontzertua Ez Dok-en

Zapatuan, 23:30etik aurrera Daniel Payne & The Od's izango dira Ez Dok tabernan kontzertuan, Texaseko country musika zuzenean eskaintzen.



Hitzaldi eta lehiaketa

Datozen egunotan hainbat jarduera egingo dira El Corte Inglesean: gaur arratsaldean eta datorren barrixakuan, 18:00etan "Fashion Fridays" izenburuari jarraituta moda eta edertasunari buruzko hitzaldiak egingo dituzte. Gaurko saioan Silvia Gallego eta Laura Chamorro izango dira protagonista. Eta, horrez gain, bihar hasiko da "Trompos Cometa" lehiaketa (apirilak 23, maiatzak 7 eta 21ean eta ekainak 4an, 19:00etan jokatu da, informazio gehiagorako jostailu sailean galdetu daiteke).



Barrez lehertzeko moduko saioa

Ondo baino hobeto pasatu zuten eguazten arratsaldean Ion Martinez "Txiki" aktore eta umoristak ...eta kitto!-n eskaini zuen "Mil a Zien: Baietz barrez lehertu!" ikuskizunera etorritakoek. Bakarriketa formatuko ikuskizunean, besteak beste, ikusleei barregura eragin zieten umetako kontu ezagun asko gogorazi zituen eta, jakina, izenburuak aurreratzen zuena beteta, ikusleak "barrez lehertu" ziren.



Danborradetarako entseguak

Aurreko astean, apirilaren 13an hasi ziren Umeen Danborradarako entseguak, 19:00etan. Nagusien Danborradarako entseguak, berriz, datorren astean, apirilaren 27an hasiko dira, 20:00etan. Aurrerantzean eta ekainaren 22ra arte, astero egingo dituzte entseguak udalak Bittor Sarrasketan duen lokalean (7. zenbakian, Beistegi eraikinean), eguaztenean, umeek 19:00etan eta helduek 20:00etan. Nagusien Danborradan parte hartu nahi dutenak lehen entsegura joatera animatu nahi dituzte arduradunek.



Gerra Zibilaren App-a

Gerra Zibileko Eibarko Frontearen aplikazio berria ipini dute eskuragarri App Storen eta Google Playn, dohainik. Aplikazioa Udalak sortu du "Gerra Zibila Eibarren" Interpretazio Zentrorako, 1936ko irailetik 1937ko apirilera bitartean, zazpi hilabetetan, gertatutakoaren berri emateko. Azaldu dutenez, "Arrate inguruko ibilbidean dauden informazio-paneletara gerturatuta, adierazten den botoian sakatu eta QR kodea eskaneatu edo panelaren zenbakia sar daiteke eta, jarraian, azalpenak jaso".

Bertsolari gazteek betetako asteburua

Aurreko asteburuan bertsolaritzak protagonismo berezia izan zuen gurean. Barixakuan Plazatik Gaztetxera Txapelketa abiatu zen Eibarko gaztetxean eta domekan, berriz, Eskolarteko Bertso Txapelketako kanporaketa Coliseoan jokatzeari gain, jarraian Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna ospatu zuten probintzia guztitik etorritako bertso eskoletako kideek.

Barixaku gauean abiatu zen Plazatik Gaztetxera txapelketaren aurtengo edizioa Eibarko gaztetxean. Gazte Asanbladako kideen eskutik egindako afarian 50 bat lagun bildu ziren eta saioari afalosten ekin zioten zortzi bertsolariek, bikoteka: Malen Amena-bar-Aissa Intxausti, Maria Iza-ga-Ane Zuazubiskar, Aitor Salegi-Antton Aizpurua eta Manex Astigarraga-Maddi Sarasua.

Txapelketako arduradunek helarazitako kronikaren arabera, "saioa, ohi bezala, etxetik prest ekarritako agurrekin hasi zen, batzuk doinu berezietan eta antzerki pixkat eginez, beste batzuk tradizionalago... gustu guztiak asetzeko moduan eta, noski, horrek giroa berotzen lagundu zuen".

Ondoren aurkezleak jarritako gaiei erantzun behar izan zioten, zortziko nagusian hasi eta zortziko txikiarekin jarraituta: "Saioak goia jotzea erabat lotu ez bazen ere, ale eder batzuk entzuteko aukera izan zuten

bertaratu ziren entzuleek. Herriko berben esanahia asmatzeko ariketan, esaterako, kurio-soa izan zen gerturikoa, bakar batek ez baitzuen asmatu berba ondo definitzen, baina txisteak egiteko parada ezin aproposagoa izan zuten. Azkenik, kopletan eta bakarka aritu ziren bertsolariak eta Aitor Salegi



Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna ospatu zuten. Maialen

Beñat Mujika eta Aizpea Garmendia Eskolarteko Finalera

Domekan Eibarrera, Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna ospatzera zein Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa ikustera etorritako eskoletako kideak 10:30ak aldera hasi ziren Untzagan elkartzen. Egunaren harira egindako kamisetak banatu eta jantzi ondoren, talde argazkia egin zuten harmailetan eta, jarraian, Coliseo-raino kalejiran joan ziren, Usartza txistulari taldekoek lagunduta. Eskolartekoaren finalak 300 bat entzule bildu zituen eta Mikel Artolak kanporaketatik sailkatutako zortzi bertsolariak aurkeztuta hasi zen: Aizpea Garmendia, Andoni Mujika, Ane Peñagarikano, Beñat Mujika, Gontzal Belategi, Itziar Mendia, Libe Goenaga eta Urko Arregi. Epailak Ainhoa Mujika, Amaia Otxotorena eta Martin Aramendi izan ziren eta Nerea Urrak, berriz, idazkari jardun zuen eta, saioa amaituta, txapelduna Beñat Mujika izan zen eta txapeldunordea, berriz, Aizpea Garmendia. Biek ekainaren 4ean Ereñozun ospatuko den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketako finalean abestuko dute. Saioa entzun eta bazkalostean txoko desberdinetan jolasak eta tailerrak egin ziren.




Eibarko kanporaketan Maddi Sarasua-Manex Astigarraga eta Aitor Salegi-Antton Aizpurua bikoteek lotu zuten aurrera egitea. Maialen

zestoarrak bakarka bota zituen bi bertsoak nabarmendu ziren, erruleta errusiarraren jokoan, bere buruari tiro egitera zihoan pertsonaia baten azalean".

Gauzak horrela, entzuleen bozkak eta publikoko talde aukeratuarenak bat etorri ziren. Aurten saio bakoitzeko bi bikote sailkatuko dira eta Eibarko kanporaketan Maddi Sarasua-Manex Astigarraga eta Aitor Salegi-Antton Aizpurua bikoteek lotu zuten aurrera egiteko txartela eta Markina-Xemeinen eta Deban jokatu diren finalerdietan egongo dira, hurrenez hurren.



Beñat Mujikak jantzi zuen txapela eskolartekoen finalean eta Aizpea Garmendia izan zen bigarrena. Biak izango dira Ereñozuko finalean.



Kiko Veneno Ermuan

Gaur gauean, 22:15ean hasiko da Kiko Veneno abeslariaren kontzertua Ermua Antzokian. Udalak antolatutako emanaldirako sarrerak 12 euro balio du.



Musika eta dantzak Bergaran

Musiraka dantza taldeak, Uxue Agirrek eta Bergarako Orkestrako Ganbera taldeak "Bi mila eta bost bi mila eta hamasei" musika eta dantza ikuskizuna eskainiko dute bihar Bergarako Udal Pilotalekuan, 22:30ean (sarrerak 5 euro balio du).



Herrixa Dantzan Elgetan

Elgetako Espaloia kafe antzokiko taberna itxita egon arren, Herrixa Dantzan dantzaldiek bere horretan jarraituko dute, Udalarekin hala adostuta eta domekan dantzaldi ireki saioa egingo dute, 19:00etatik 20:30era. Patxi Monterok gidatuko duen saioa orotariko musika eta dantzeekin osatutakoa izango da (sokan, bikoteka, soltean, korruan, taldeka...). Sarrera doan izango da eta parte-hartzea librea.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Manuel Vazquez Veiga. 82 urte. 2016-IV-14.
- Antonio Navarro Casas. 78 urte. 2016-IV-14.
- Jose Zuloaga Osoro. 90 urte. 2016-IV-14.
- Isabel Davila Davila. 76 urte. 2016-IV-14.
- Felicidad Mtnez-Alcocer Horcajada. 88 urte. 2016-IV-15.
- Luis M^a Aranegi Zabaleta. 84 urte. 2016-IV-16.
- Pakita Odrizola Agirrebeña. 79 urte. 2016-IV-16.
- Jacinto Errasti Albistegi. 77 urte. 2016-IV-17.
- Carmen Bakaikoa Razkin. 84 urte. 2016-IV-17.
- M^a Elena Arana Elexpuru. 63 urte. 2016-IV-18.
- Bernabe Ordoño Delgado. 87 urte. 2016-IV-19.
- Juanita Kortazar Arriola. 95 urte. 2016-IV-19.
- Ana Santos Martin. 85 urte. 2016-IV-20.

jaiotakoak

- Alba Romero Mora. 2016-IV-13.
- Telmo Beltran Saiz. 2016-IV-16.
- Libe Zulaika Argoitia. 2016-IV-16.

farmaziak

- Barixakua 22
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 23
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 25
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Martitzena 26
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Eguaztena 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguena 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 29
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

	2				7		
			4	5		1	
5			6				4
		7	8		5		6
		2	5		1	4	
8		5			6	3	
7				1			9
	1		3		9		
		9				7	

6	4	7	3	5	8	9	2	1
2	8	1	7	6	9	5	4	3
5	9	3	1	4	2	6	7	8
4	3	9	2	1	6	8	5	7
7	1	5	9	8	4	2	3	6
8	6	2	5	3	7	4	1	9
1	7	8	6	2	5	3	9	4
9	2	4	8	7	3	1	6	5
3	5	6	4	9	1	7	8	2

AURREKOAREN
EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 22

TAILERRA

17:30. "Ez da magia, errealitate areagotua da". Umeen liburutegian.

BISITA GIDATUA

19:00 eta 20:00. "Argazki baten istorioa", Nerea Alustiza historialariaren eskutik. Untzagan hasiko da (udaletzeko sarreran, argazkiaren aldamenean).

GIN TONIC FINALA

20:30. Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan egindako Lehiaketako finala, Oihan Vegak girotua. Untzagan.

Zapatua 23

II. ERREPUBLIKA

10:00. "II. Errepublikaren Eibar" ibilbide historikoa, Jesus Gutierrezekin. Untzagatik abiatuta.

BISITA GIDATUA

11:00, 12:00 eta 13:00. "Argazki baten istorioa", Nerea Alustiza historialariaren eskutik. Untzagan hasita.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "Del revés" (Inside out). El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan.

DANTZA

20:30. "Aureo" (Dantzaz Konpainia). 8 euro. Coliseoan.

Domeka 24

BISITA GIDATUA

12:00 eta 13:00. "Argazki baten istorioa", Nerea Alustiza historialariaren eskutik. Untzagan hasita.

NEPALERA BIZIKLETAN

18:30. Santurtzitik Nepalera bizikletan joango den Goyok geraldia egingo du eta berarekin tea hartzeko aukera izango da. Untzagan.

Astelehena 25

HEZKUNTZAREN ASTEA

17:30. Bideo-foruma: "Camino a la escuela". Liburutegian.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

19:00. "Botikak ondo hartzea: noiz eta nola?" hitzaldia, Idoia Sarasketa sendagilearen eskutik. Untzagako jubilatutuen etxean.

GERRARIK EZ

19:00. Gerrarik Ez taldearen bilera. Arrate Kultur Elkartearen.

Martitzena 26

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

11:00. Toka eta igel-toka txapelketa. Ipurua jubilatuen etxean.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

16:00. Txokolate-jana eta kantuak. San Andres zaharren egoitzan.
17:00. Mahai-jokoen txapelketa. Ipurua jubilatuen etxean.

HEZKUNTZAREN ASTEA

17:30. "Las escuelas del mundo" liburuan oinarritutako umeendako tailerra. Liburutegian.

HITZALDIA

19:00. "1937ko Bonbardaketa Eibarren". Bonbardaketa bizi zuten Julia Lanas Zamakola eta Kontxa Laspiur Zabalaren zuzeneko testigantza. Moderatzailea: Josu Ibagutxi. Topalekuan.

IKUS-ENTZUNEZKOA

19:00. "Bilbao Mendi Film Festivaleko onena". Coliseoan.

HITZALDIA

19:00. "Elikadura burujabetza" jardunaldia. Portalean.

GURE ESKU DAGO

19:00. Gure Esku Dago herri ekimenaren bilera. Arrate Kultur Elkartearen.

Eguaztena 27

HITZALDIA

19:00. "Ekonomia sozial eraldatzailea. Nondik hasi?". Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

Eguena 28

ODOL-ATERATZEA

18:30/20:30. Odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

IKUS-ENTZUNEZKOA

19:00. "Bilbao Mendi Film Festivaleko onena". Coliseoan.

BILERA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren bilera irekia. Portalean (3. solairuan).

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

19:00. "Botikak ondo hartzea: noiz eta nola?" hitzaldia, Idoia Sarasketa sendagilearen eskutik. Beheko Tokian.

BISITA GIDATUA

19:00 eta 20:00. "Argazki baten istorioa", Nerea Alustiza historialariaren eskutik. Untzagan hasita.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

Erakusketak

Apirilaren 30era arte:

"Andrak eta errepublika" (*Juan San Martin liburutegian*)
"ADECAP Elkarteak 25 urte" (*Armagintzaren Museoan*)
Eibarko Artisten Elkartearen 50. urteurrena (*Portalean*)
Arantza Alvarez margoak (*Untzagako Jubilatuen Etxea*)

Maiatzaren 1era arte:

"1937ko Bonbardaketa Eibarren" (*Topalekuan*)

2016ko abendura arte:

Jose Luis Apraizen arma-bilduma (*Armagintza Museoan*)

Lehiaketak

Maiatzaren 3ra arte:

"Valenciaga Oroitzarrea" argazki-lehiaketa
Lanak aurkeztea: Eibarko Txirrindulari Elkartearen (Pagaegi, 3).
Informazio gehiagorako: cce@clubciclistaeibarres.org

Maiatzaren 6ra arte:

- "Sanjuanak Eibarren" kartel-lehiaketa
- Alkohol larregi edatearen kontrako pegatina-lehiaketa
Informazioa eta lanak aurkeztea: Pegoran.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, NOA!!, domekan 6 urte beteko dozuz-eta. Primeran ospatu eta patxo haundi bat zure famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL Lasuen, atzo lau urtetxo egin zenduaz-eta. Patxo potolua aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, MARKEL, atzo sei urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Telmoren partez.



Zorionak, URKO, martitzenian bi urte egingo dozuz-eta. Etxekuon besarkada haundi bat eta muxua Aner anaiaren partez.



Zorionak, ANE Mendizabal Osa, zure laugarren urtebetetzian. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, NAIA! Zure laguntxo Paula, Telmo, Alex eta Markelen partez.



Ongi etorri, LIBE, eta zorionak, LUKEN. Oin zaindu ondo-ondo zure arreba txikixa. Laster da zu bezain haundi!



Zorionak, NORA eta PAULA, hillaren 5ian eta 21ian urtiak bete dozuez-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Gure altxorak apirillean urtiak egitten ditue: ARRATEK 11 eta MIKELEK sei. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OSKAR (haraiñegun) eta NAHIA (gaur zazpi urte), zeuen urtebetetzian. Laztan haundi bana eta ondo-ondo ospatu.



Zorionak, ELENE eta BITTOR! Segi alai eta jator. Jaso patxo potolua famelixa guztiaren partez eta, batez be, zuen lehengusu-lehengusina kuadrillaren partez.



Zorionak, NEREA (18 urte) eta MARIA (zazpi), astelehenian urtiak egingo dozuez-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MAITANE (hillaren 8xan 13 urte bete zenduaz-eta) eta ANDER (hillaren 19xan 17 urte). Muxuak famelixa guztiaren partez.



zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

23an: 17:00, 19:45

24an: 17:00, 20:00 (antzokia)

25ean: 20:30 (antzokia)

"Lady in the van"

Zuzendaria: Nicholas Hytner



(2 ARETOAN)

23an: 19:45, 22:30

24an: 17:00, 20:00

25ean: 20:30

"Resucitado"

Zuzendaria: Kevin Reynolds



(ANTZOKIAN)

23an: 17:00 (2 aretoan)

24an: 17:00

"El libro de la selva"

Zuzendaria: Jon Favreau



(1 ARETOAN)

23an: 22:30

24an: 20:00

25ean: 20:30

"Mustang"

Zuzendaria: Deniz Gamze



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai San Agustín zeharbidean. 3 logela, egongela handia, sukalde eta bi komun. Garbararekin. Berrizteke. Tel. 679-230519. Whatsapp bidali.
- Pisua salgai Debako erdigunean. Bi kaletara ematen du. 3 logela, egongela eguzkitsua, jangela handia, sukalde berria, 2 komun, trastero eta terraza txikia. Leiho berriak kristal bikoitzarekin. Tel. 656-737198 eta 635-751970.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar erdialdean. Tel. 632-682005.
- Neska batek logela hartuko luke alokairuan. Tel. 943-203184.
- Pisua (edo logela) hartuko nuke alokairuan Eibarren. Lagun bakarrentzako. Tel. 622-315458. Abraham.
- Udarako etxebizitza alokagai Deban. 2 logela. Erdigunean kokatuta. Tel. 607-180791.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 450-500 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 631-343232.

2. Motorra

2.1. Salgai

- 2014ko azaroko Ford Kuga salgai. Diesel, 140cv, 2.TDCi Titanium. 4x2. 22.000 km. Berriberria. Tel. 637-340441.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Taberna traspasatzen da Eibarren. Prezio onean. Tel. 628-235319.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean (Txomo eta Abontza artean). Tel. 617-688311.
- Lokala alokagai Ubitxa inguruan, kalerako irteera zuzenarekin. Bulego, biltegi edo tailer txikiarendako proposa. 70m²/150m². Tel. 617-688311.
- Marbxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 672-442318.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Tel. 631-133431.
- Neska langilea eskaintzen da nagusiak zaindu (etxean edo ospitalean) eta garbiketarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-925362.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-017974.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde garbiketa-lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-682005.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 699-509130.
- Eibarko neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta enkarquak eta garbiketa-lanak egiteko. Goizez edo orduka. Tel. 658-845081.
- Magisteritza ikasten diharduen neska eibartarra eskaintzen da arratsalde umeak zaintzeko. Tel. 606-187556.
- Emakume arduratsua eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko. Tel. 688-872312.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-607193.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 632-337083.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-434137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-139915.
- Emakumea eskaintzen da etxea garbitu eta nagusiak zaintzeko. Tel. 608-376389.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 622-153750.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 655-094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Berehala hasteko moduan. Tel. 628-738472.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Asteburuak barne. Tel. 642-267113.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 663-639241.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxea garbitzeko. Tel. 631-988471.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 616-833195.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 640-209948.- Gizona eskaintzen da gaez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 658-458271.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604-297837.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, sukalde-laguntzaile jardun eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-562380.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 642-694596.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 631-506763.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-967238.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-454417.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-705406.
- Neska eskaintzen da astegunetan goizez etxeko garbiketarako egin eta gaez ospitalean zaintzeko. Esperientzia. Tel. 652-587259.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 652-587259.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 686-265293.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.

4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da astean zehar goizez umeak zaintzeko. Deitu arratsalde. Tel. 637-012625.
- Sukaldari orientala behar da autoarekin. Tel. 670-672515.
- Kamarera/o behar da lanaldi osorako. Tel. 615-750942. Oskar.
- Kamarera/o behar da asteburuetarako Eibarren. Curriculumak: tre@euskalnet.net

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Al-berto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko LP-ak eta diskoak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Juan Serranoren hainbat margolan saltzen ditut. Tel. 656-710155 eta 943-207703.



Ignacio Zuloaga Institutua

EIBAR



Ate irekien eguna

Apirilak 27

Ordua 18:00

Batxilergoak: Arteak - Giza eta Gizarte Zientziak - Zientziak



Elkartrukea



Alemaniko Balingen ikastetxearekin



Jardifeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

IES **UNI** BHI EIBAR-ERMUA

AUKERA ZABALENA!

**HEZIKETA ESKAINTZA:
A ETA D EREDUAK**

BATXILERGOAK

Zientziak eta Teknologia
Humanitateak eta gizarte zientziak
Aukerako irakasgaien eskaintza zabalena

PROIEKTUAK ETA JARDUERAK

Nazioarteko ikasle-trukeak
UNI Encounter
Hizkuntzaren normalkuntza
Osasunarentzako programa
Urrats Bat
Agenda 21
Informatika ingelesez

TEL. 943 20 84 44
www.uni.eus
idazkaritza@uni.eus

 twitter @UniEibarErmua
 www.facebook.com/iesunibhi

**BATXILERGORAKO
AURREMATRIKULA:
MAIATZAREN 2-TIK 12-RA ARTE**

ATE IREKIAK:
APIRILAREN 27AN 16:30-18:30
APIRILAREN 30EAN 11:00-13:00

ERRENTA2015

ZERTAN INBERTITZEN DU ALDUNDIAK ZURE DIRUA?

Ekonomiaz, garapenaz, aberastasuna sortzeaz eta giza ongizateaz haratago, Gipuzkoa hazten jarraitzeko zergak biltzeaz haratago, orain, jartzen duzun euro bakoitza zugar inbertitzen dela ulertzeko momentua da. **Orain Gipuzkoa.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO URTEKO AURREKONTUA

812M€

